

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Kanpoko derrigorrezko praktikak
<b>Ikasgaia:</b> Zaintzarako Praktiketako Hastapena	<b>Kronograma:</b> 2. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 27975	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b>	<b>ECTS kredituak:</b> 6
Kanpoko praktika akademikoak ikasleak eginiko eta Unibertsitateak gainbegiratutako prestakuntza-izaerako jarduera bat dira. Jarduera horren helburua da ikasleari prestakuntza akademikoan hartutako ezagutzak aplikatzeko eta osatzeko aukera ematea, ikasleak erizainaren lanbidean aritzeko prestatuko, lan-merkaturatzea erraztuko eta ekintzailatza sustatzen duten gaitasunak lor ditzan.	<b>Maila:</b> 1. maila
<b>Sartzeko eskakizunak / gomendioak</b>	
Bat ere ez	

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
<b>Ikasgaiaren arduraduna:</b> M <sup>a</sup> Dolores Calle Calle	945 218085	mdolores_calle@ehu.eus
<b>Practicumaren koordinatzailea</b> Jesús Martín Bezos	945 218056	jesus_martin@ehu.es
<b>Irakasleak:</b> BGP dedikazio osoan Kanpoko tutoreak		

## GAITASUN OROKORRAK

Lanbide-aurreko praktikak, txandakatze kliniko independente moduan eta gaitasunen amaierako ebaluazio batekin, osasun-zentroetan, ospitaleetan eta bestelako zentro asistentzialetan, balio profesionalak, komunikazio asistentzialesko gaitasunak, arrazoitze klinikoak, kudeaketa klinikoak eta irizpen kritikoa barneratzeko aukera ematen dutenak, praktika profesionalean erizaintzaren ezagutzak, abileziak eta jarrerak integratuz, printzipioetan eta balioetan oinarrituta, helburu orokorretan deskribatutako gaitasunekin lotuta eta titulua osatzen duten arloekin lotuta.

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- C1. Lan profesionalean hasi aurreko praktika garatzea, lanbidea arautzen duten lege eta etika printzipioak txertatuz, errespetuzko jarrera erakutsiz eta egoerarekin eta testuinguruarekin bat etorritz.
- C2. Ikaskuntzarekiko jarrera proaktiboa eta prestakuntzarekiko konpromisoa erakustea.
- C3. Praktika zainketarekin zerikusia duten segurtasun klinikoko printzipioak integratuz egitea.
- C4. Osasun-taldeko kideen rolak eta harreman profesionalak aztertzea, eta erizainaren eskumen-arloa identifikatzea.
- C5. Pertsonekin eta haien familiekin errespetuzko harreman bat ezartzeko gaitasuna erakustea.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Ikaskuntzaren emaitzak Practicumaren ebaluazio-dokumentuetan deskribatzen dira.

## EDUKIAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERA	IRAKASLEAK	ORDUAK TEORIA	TAILER-ORDUAK
Tutoretzapeko praktikak			
Practicumaren araudia	Jesús Martín Bezos Loli Calle Calle	2	-
GUZTIRA		<b>2</b>	-

## METODOLOGIA

Kanpoko praktika akademiko hauetan hainbat agentek hartzen dute parte. Batetik, ikasleak, euren ikaskuntzaren arduradunak direlako. Gaitasunen garapenean eta ebaluazio jarraituko prozesuan modu aktiboan hartzen dute parte.

Bestetik, UPV-EHUK onartutako ikasleen kanpoko praktikak arautzen dituen indarreko araudiaren arabera, beste agente hauek ere hartzen dute parte praktiketan:

### ***Instruktorea (zentroko tutorea)***

Praktiketako zentro kolaboratzaileetako erizain bat da, Unibertsitatearekin adostu ondoren prestakuntza-jarduerak antolatzeaz arduratzen dena.

### ***Unibertsitateko tutorea (irakaslea eta ikertzailea)***

Erakunde kolaboratzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten dituen ikaslea jarraitzeaz eta laguntzeaz arduratzen den irakaslea da.

Ikasgai honetan erabiltzen den ikaskuntza-metodologia arazoak konpontzeko metodo zientifiko baten aplikazioan eta gogoeta-praktikan dago oinarrituta. Horrek eskemak eta estrategiak progresiboki hartzen laguntzen dio ikasleari, epe ertainean erizaintzako profesional gogoetatsua izan dadin.

Praktikak erizaintzako ikaslearen arreta indibidualizatuan oinarritzen dira. Ikasleak, instruktorearen eta unibertsitateko praktiketako tutorearekin, bere ikaskuntza-helburuak ezarriko ditu, jasotako gaitasunekin bat etorritik.

Ikasgai honen kredituak presentzialak dira erabat, 1837/2008 Errege Dekretuaren erregulazioari jarraiki, bertan adierazten baita Erizaintza Gradu ikasleek 2.300 ordu eman behar dituztela praktika asistentzialak egiten.

Practicumaren ikaskuntza-prozesuan, hiru tutoretza egiten dira gutxienez:

1. tutoretza. Praktiketako modulua hasterakoan egiten da.

Bertan, praktika-unitatearen ezaugarriak azaltzen dira, eta practicuma gainditzeko lortu behar diren ikaskuntza-emaitzak eta jarraitu beharreko lan-dinamika aurkezten.

2. tutoretza. Moduluaren erdialdean egiten da eta modu ez-presentzialean egin daiteke. Ikaslearen ikaskuntza-prozesua baloratu eta estimulatu da, baita ezarritako gaitasunen lorpena ere. Horrez gain, beharrezkoa izanez gero, ikaskuntza birbideratzen da.

3. tutoretza. Praktiken modulua amaitzean, nagusiki modu presentzialean, ikaskuntza-prozesua, ikaskuntzaren emaitzak eta practicumaren hasieran ezarritako gaitasunak ebaluatzen dira. Azken elkarrizketan, ebaluazioak izaera sumatiboa izango du; ikasleak jasoko duen azken kalifikazioa (0tik 10era) praktika-modulu osoan lortutako gaitasun-garapenaren arabera izango da.

### **Estrategia metodologikoak**

- Informazio-saioa, ondokoa jorratzeko:
  - Praktiketako araudia.
  - Segurtasun klinikoa praktikan. Istripuen eta intzidentzien protokoloak.
- Tutoretzapeko praktikak egitea eszenatoki errealean; bertan, ikasleek behaketa, esperimentazioa, ekintzari buruzko gogoeta, bilaketa eta analisi bidez, beren mailarako ezarritako gaitasun profesionalak lortu eta garatuko dituzte. Ikaslearen tutoretzak instruktorearekin (zentroko tutorea) eta Unibertsitateko praktiketako tutorearekin.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

### Ebaluazioa egiteko tresnak:

1. Gaitasun eta ikaskuntza-emaitzen dokumentua: gaitasunak, ikaskuntza-emaitzak eta ebaluaziorako errubrikak jasotzen ditu.
2. Prozedurak aurrera eramateko gaitasunari buruzko dokumentua: PH gauzatzen den bitartean, esku-garbigeta higienikoaren prozedura egiteko gai direla egiaztatu beharko dute ikasleek, prozeduren gidan deskribatutakoaren arabera.

Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Horretan, ikasleek beren gaitasun-garapenaren ebidentzia erakutsiko eta arrazoitu beharko dute. Unibertsitateko tutoreak, praktikak ebaluatzeko, ikaslearen instruktoreak eginiko txostena izango du oinarri, ezarritako irizpideei jarraituz eta ebaluatzeko tresnak erabiliz.

Azken kalifikazioa ikasleek helburu horretarako ezarritako tresna ezberdinetan erakutsitako ebidentzietatik lortuko da.

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	EBALUAZIO-JARDUERA	KALIFIKAZIO GLOBALA %
G1, G2, G3, G4, G5	5 gaitasunen ikaskuntzaren emaitzak	Tutoretzapeko praktikak, ebaluazio triangulatuarekin	%100

Azken kalifikazioa 10etik 7 baino bajuagoa bada, ikasleek txosten bat jasoko dute identifikatutako hobekuntza-arloekin.

### Ebaluazioan aintzat hartu beharreko irizpideak

Praktikarako hastapenak ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa da 5 gaitasunen ikaskuntzako emaitza guztiak 5 batekin edo gehiagorekin GAINDITZEA.

Praktiken %100 presentziala izango da. Praktiken epealdiari esleitutako denboraren %50 baino gutxiago egiten duten ikasleari "Ez aurkeztua" jarriko zaio ikasgaiaren aktan. Ikasleak praktikak uzten baditu %50eko edo gehiagoko epealdi bat bete ondoren, "Ez gai" jarriko zaio ikasgaiaren aktan.

UPV/EHUn indarreko graduko titulu ofizialetako ikasleen ebaluazioa arautzeko araudia kontuan izanik, ikasle bakoitzak urteko deialdi bakarrerako eskubidea izango du ikasgaia gainditzeko.

Praktiketako Batzordeak eskubidea izango du ezohiko kasuetan (hots, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan), aldiaren epea luzatzea erabakitzeko, ezarritako egutegi akademikoaren barruan. Salbuespen horrek ez die eragiten deialdi honetan egin eta gainditu ez diren praktikei.

### EZOHIKO DEIALDIA: DEIALDIAK ETA UKO EGITEA

Ez dago jasota.

## DERRIGORREZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Arauz ezarritako uniforme eta eskalapoiak
- Erlojua, segundo-orratzarekin
- Boligrafoa, punta kamutseko artaziak eta oharrak hartzeko koadernotxoak
- Ikasleek identifikazio-txartel bat eraman beharko dute beti, dela zerbitzu-erakundeak emandakoa, dela UPV/EHUko ikasle-txartela.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia

- \* Praktiketako araudia
- \* Istripuen eta intzidentzien protokoloa
- \* Gradu aurreko eta gradu osteko ikasleei harrera egiteko gida (Arabako ES1a)

### Baliabide elektronikoak

- \* <https://egela.ehu.es/curso>: Zainketa-praktikaren hastapena
- \* UPV/EHUren liburutegi birtuala. [Eskuragarri: <http://www.biblioteka.ehu.es/p006-9117/es>]
- \* Elsevier Clinical Skills [Eskuragarri: <https://www.elsevierclinicalskills.es/default.aspx?language=es-ES>]
- \* Osanet: Euskadiko Osasunaren Ataria: [Eskuragarri: <http://www.euskadi.net/sanidad>]

## OHARRAK

Izena emandako ikasle guztiek praktiketako zentroek ezarritako konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala bete beharko dituzte, baita eskatutako eskakizunak ere.

2022-2023 ikasturtearen hasieran, ikasleek dokumentu hauek eskuratu ahal izango dituzte eGelan:

- Irakasgaiaren gida, gaitasunen eta ikaskuntzako emaitzen dokumentua eta jarduera-protokoloak eta prozedurak egiaztatzeko gidak.